

EAJ-PNVk herritarren segurtasunaren arloan dituen erantzukizunak bere gain hartzeko eskatu dio Udal Gobernuari

- *Talde jeltzaleak "ostrukaren teknika" praktikatzea leporatu dio EH-Bilduri, arazoak ukatuz eta eztabaida diskurtso antzuekin desbideratuz*

Laudio, 2025eko azaroaren 14a. – **EAJ-PNV udal taldeak** EH-Bilduko Udal Gobernuari eskatu dio bere gain har ditzala herritarren segurtasunaren arloko erantzukizunak, Laudioko bizilagunen artean kezka eta ezinegona sortzen ari diren lapurretak, ebasketak eta okupazioak ugaritu egin direlako. Alderdi jeltzalearen ustez, Ainize Gastaka alkatearen taldeak erantzunik eman ez izanak zigorgabetasun eta segurtasun gabezia sentsazioa areagotzen ari da udalerrian.

"Laudion ukatu ezin den errealitate bat dago: etxebizitzetako lapurretak, kaleko lapurretak, legez kanpoko okupazioak eta adinekoekin eta gazteekin izandako istiluak areagotzen ari dira", adierazi du **Ander Añibarro** bozeramaile jeltzaleak. "Udal Gobernuaren erantzuna ezin da izan burua hegala azpian ezkutatzea, ostrukaren teknika aplikatzea errealitatea ukatzeko eta, jendea kezkatzen denean eta neurriak eskatzen dituenean, haizagailua piztea arreta desbideratzeko eskuin muturreko ustezko diskurtsoak argudiatuz. Jarrera hori arduragabea bezain onartezina da".

EAJ-PNVk gogorarazi du udalerriko hainbat tokitan, hala nola **Aretan, Ellakurin, Isasin, Virgen del Carmenen eta Motxotekalen**, lapurretak eta ebasketak izan direla azken asteetan, eta beste toki batzuetan, Laudioalden esaterako, legez kanpoko okupazioen inguruko kezka areagotu egin dela. "Eguneroko bizikidetzari, segurtasunari eta bizilagunen konfiantzari eragiten dieten gertaerak dira. **Kontua ez da alarma sortzea, baizik eta dagoen eta erantzun serioak behar dituen arazo bati aurre egitea**", adierazi du **Añibarrok**.

Izan ere, "EAJ-PNVtik **joan den hileko osoko bilkuran Udaltzaingoan errefortzuak, baliabide tekniko gehiago eta Ertzaintzarekin koordinazio estuagoa eskatu genituen**, segurtasuna ez baita diskurtsoekin bermatzen, baliabideekin eta plangintzarekin baizik", gaineratu du.

Bozeramaile jeltzaleak herritarren segurtasunaz, etxebizitzaz eta okupazioaz arduraz, lasaitasunez eta aurreiritzirik gabe hitz egiteko beharra defendatu du: "Hori egin behar da, nahiz eta deserosoa izan, ultraeskuinaren gehiegikerian, populismoan, onkerian eta muturreko ezkerren ukazioan erori gabe. Segurtasunak eta errespetuak eskutik joan behar dute. Gure erantzukizuna da arazoak onartzea eta horiek konpontzeko benetako neurriak planteatzea".

Horregatik guztiagatik, EAJ-PNVk udal-gobernuari eskatzen dio beste aldera begiratzeari utz diezaiola eta behingoz bere gain har dezala egoera horren kudeaketan duen erantzukizuna. "Udal Gobernuaren buru direnek auzokideen konfiantza berreskuratu behar dute. **Ez da nahikoa beste batzuk seinalatzea edo ebidentzia ukatzea: lidergoa, entzute aktiboa eta ekintza behar dira. Laudion kezka dago, eta laudioarrek espero dutena irtenbideak dira, ez justifikazioak edo aitzakiak**", bukatu du Añibarrok.

EAJ-PNV exige al Gobierno municipal que asuma sus responsabilidades en materia de seguridad ciudadana

- *El grupo jeltzale acusa a EH-Bildu de practicar la “técnica del avestruz”, negando los problemas y desviando el debate con discursos estériles*

Laudio, 14 de noviembre de 2025. – **El Grupo municipal de EAJ-PNV** ha exigido al Gobierno municipal de EH-Bildu que asuma sus responsabilidades en materia de seguridad ciudadana ante el aumento de robos, hurtos y ocupaciones que están generando preocupación y malestar entre las vecinas y vecinos de Laudio. La formación jeltzale considera que la falta de respuesta por parte del equipo de la alcaldesa, Ainize Gastaka, está alimentando una creciente sensación de impunidad e inseguridad en el municipio.

“En Laudio hay una realidad que no se puede negar: aumentan los robos en viviendas, los hurtos en la calle, las ocupaciones ilegales y los incidentes con personas mayores y jóvenes como víctimas”, ha afirmado el portavoz jeltzale, **Ander Añibarro**. “La respuesta del Gobierno municipal no puede ser esconder la cabeza debajo del ala, aplicar la técnica del avestruz para negar la realidad y, cuando la gente se preocupa y exige medidas, encender el ventilador para desviar la atención con el argumento de los supuestos discursos de extrema derecha. Esa actitud es tan irresponsable como intolerable”.

EAJ-PNV recuerda que en diferentes puntos del municipio como **Areta, Ellakuri, Isasi, Virgen del Carmen y Motxotekale** se han producido en las últimas semanas múltiples episodios de robos y hurtos, mientras en otras zonas, como el entorno de Laudioalde, la preocupación vecinal por las ocupaciones ilegales se ha disparado. “Son hechos que afectan a la convivencia diaria, a la seguridad y a la confianza de las vecinas y vecinos. **No se trata de crear alarma, sino de afrontar un problema que existe y que requiere respuestas serias**”, ha señalado Añibarro.

De hecho, **“desde EAJ-PNV ya solicitamos en el pleno del mes pasado refuerzos en la Policía Municipal, más medios técnicos y una coordinación más estrecha con la Ertzaintza,** porque la seguridad no se garantiza con discursos sino con recursos y planificación”, ha continuado.

El portavoz jeltzale ha defendido la necesidad de hablar de seguridad ciudadana, vivienda y ocupación con responsabilidad, serenidad y sin prejuicios: “Hay que hacerlo aunque incomode, sin caer en la exageración ni en el populismo de la ultraderecha, ni en el buenismo y la negación de la izquierda extrema. La seguridad y el respeto deben ir de la mano. Nuestra responsabilidad es reconocer los problemas y plantear medidas reales para solucionarlos”.

Por todo ello, EAJ-PNV exige al Gobierno municipal que **deje de mirar hacia otro lado** y asuma de una vez su responsabilidad en la gestión de esta situación. “Quienes están al frente del Gobierno municipal deben recuperar la confianza de las vecinas y vecinos. **No basta con señalar a otros o con negar la evidencia: hace falta liderazgo, escucha activa y acción. En Laudio hay preocupación, y lo que esperan las y los laudioarras son soluciones, no justificaciones ni excusas**”, ha concluido Añibarro.